

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko ekainaren 21a. VIII. urtea. 2.247. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Eneritz Iturriagak irabazi du Euskadiko Txapelketa

Zizurkil-Villabona sarian, juniorretan, Tolosa taldeko Irene Usabiaga gailendu da, eta kadeteetan Lierni Lekuona ◊ 7



Elite mailan Eneritz Iturriagak irabazi zuen. HITZA



HITZA

→ II. Txindoki Bertikalean Walter Becerra nagusitu da.

Eskualdeko lehena Juan Mari Garin alegiarra izan da, irabazlearengandik 2:29 segundora, ondoren Eneko Garmendia baliarraindara sailkatu da; emakumeetan Ana Conde iritsi da lehen postuan Txindokiko puntara. ◊ 7

‘Altzo’ izan da azkarrena Baliarrainen, baina txapela Gabirondok jantzi du

Euskal Herriko Nazioarte Erako III. Sega Txapelketaren azken jardunaldia jokatu dute eskualdean; Europako Txapelketarako txartela eskualdeko hainbat segalarik lortu dute. ◊ 6



Zuen bisitaren zain gaude.
Eskerrik asko!

GAUR, ekainak 21
Villabonako Jubilatuen Tabernako
inaugurazioa.

Berlan itxaroten zaitugu
17:00etatik 18:00etara, otordu txikia hartzeko.

Herritar guztientzat zabalk egongo da
10:00etatik 22:30era.

Bokatak, razloak, plater konbinatuak eta
menuak eskaintzen dizkizugu.



Oinkarin dantza egin nahi duenak izena eman dezake

Adin tarterik ez dago, eta hiru urtetik aurrerako edonork eman dezake izena dantza taldean

Eneritz Maiz Villabona

Oinkari Dantza Taldeak bere ikastaroan izen emateko epea zabaldu du. Ikastaroa, Euskal Dantzak ezagutu eta disfrutatzeke gogo duten, eta hiru urtetik gorako haur, gazte edo gurasoei zuzendua dago.

Azken urteetan, helduen talde bikaina dutela martxan azpimarratu dute bertako kideek, eta adin mugarrik ez dagoela bertan izena emateko.

Entseguak Txerningo Jesusen Bihotza Ikastolan burutzen dira, eta 11 hilabeteko iraupena dute (irailetik uztaila bukaera bitarte). Izena emateko, 660 13 93 80 telefono zenbakira deitu daiteke, edo harremanak@oinkari.net helbide elektronikora idatziz jarri daiteke arduradunekin harremanetan. Uztailaren 7an eta 8an 18:00etatik 19:30era bulego bat irekiko dute Villabonako Liburutegiaren gainean, interesa duenak bertara jo dezake.

Oinkari Dantza Eskolak, urtean zehar emanaldi ezberdinak egiten ditu, eta urteroko dantza saioa burutuko du herriko Santio Jailetan. Aurten Santa Ana egunean izango da, hau da, uztailaren 26ean, Olaederra Kiroldegian.

Arroila jaitsiera egitera joango dira Sagain taldekoak

Uztailaren 8tik 10era izango da irteera Huescako Guarara. Uztailak 6a da izena emateko azken eguna

E. Maiz Asteasu

Sagain Mendi Taldeak, uztailaren 8tik 10era irteera antolatuko du. Arroila jaitsierak egingo dituzte, eta Huescako Guarara joango dira. Irteera autobusez egingo dute, eta 12 urtetik gorakoentzat izango da. Izena ematen duten lehen 28 lagunak joango dira.

Irteera, uztailaren 8an, ostira-lean 16.00etan izango da Asteasu-

ko plazatik. Villabonan 16:15ean izango da eta Tolosan 16:30ean pasako da. Bi egunetan kanpinean egingo dute lo, eta janaria, norberaren kontu izango da.

Izena kiroldegian eman behar da: 943 69 34 00 telefono zenbakira deituz. Izena ematean, 25 euro ordaindu behar da. Irteeraren kostu osoa, 60 euro izango da, eguneko 20 euro. Autobusa, karpina, bide erakuslea eta aseguruia sartzen dira.

Izena emateko azken eguna, uztailaren 6a izango da. Kontakturako telefona 610 56 26 34 da, eta uztailaren 6ean bertan, 19:00etan bilera bat egingo dute kultur etxean irteeraren argibideak emateko: jantziak, janaria,...

Subijana etxean bakarrizketak ikusteko aukera izango da, bihar

Euskarazko hiru bakarrizketa eskainiko dituzte bihar. 19:30ean hasiko dira eta sarrera doan izango da

E. Maiz Villabona

Mintzalaguna egitasmoa eta eskalduntze-alfabetatze ikastaroa ikasturte bukaerara iritsi dira. Hori dela eta, Villabonako eta Zizurkilgo Euskara Zerbitzuek ekitaldi xume bat antolatu dute biharko.

Helburua, bi egitasmo hauetako partaide guztien lana saritzea izan da. Horrenbestez, bihar, hilak 22, 19:30ean, hiru euskarazko bakarrizketa izango dira Subijana etxean.

Honakoak izango dira antzezleak: Jone Gorostarzu berastegierra, eta Amasa-Villabonako II. Bakarrizketa lehiaketan publikoaren saria jaso zuena; Olatz Etxeberrria berastegierra eta Saioa Aizpurua *Txintxetilla* clowna.

Bakarrizketaz gozatu nahi duen edonork joan daiteke Subijana etxera. Sarrera doakoa izango da, eta atek zabalik izango dira.

Irudia › Altzo



AMAITU DA IKASTURTEA

Ikasturtea bukatzen ari da, eta eskoletako ikasturte amaierako festak bezala, musika eskolek ere ikasturte amaierako kontzertuak eskaintzen dituzte. Altzoko Loatzko Musika eskolako ikasleek ere, ikasturtean zehar ikasitako eskaini zuten herritarren aurrean. Emanaldiarekin ikasturteari amaiera eman diote, iraila bitarte. HITZA

→ Laburrak

Gaur irakasleek ikasleei prestatutako bazkaria

TOLOSA › Gaur, hilak 21, Laskorain ikastolako batxilergoko irakasleek, batxilergoko bigarren kurtsoko ikasleei bazkaria prestatuko diete. Elkarrekin ospatuko dute ikasle hauek 2 urterekin hasi eta 17-18 urterekin amaitu duten etapa. «Ikastolako historia dira, eta etorkizuneko itxaropena» adierazi dute ikastolako irakasleek.

Etxebizitza tasatuetan izena emateko aukera

ZIZURKIL › Udalak gogorarazi nahi du Pasus Plazako etxebizitza tasatuetan izena emateko azken eguna hilaren 30a dela. Informazioa www.zizurkil.com web orrian edo udal bulegoetan jaso daiteke. Udal aholkulari juridikoa ostegunean, hilaren 23an, Aurrerako bulegoetan egongo da 16:00etatik 19:00etara. Interesa dutenek ordua hartu beharko dute aurrez 943 69 10 12 telefonora deituz. Udaletxera joanez gero, etxebizitzaren planoak ere ikus daitezke.

Akro Terapeutik Yoga ikastaroa uztailaren 2 eta 3an Asvinenean izango da

Asvinenea eskolaren ikastaroa akroyogan oinarritua dago; Izena emateko epea zabalik dago

E. Maiz Aduna

Akro Terapeutik Yoga ikastaroa antolatu du Asvinenea eskolak. Akroyogan oinarritutako ikastaroa da. Uztailaren 2 eta 3an izango da. 10:00etatik 14:00etara eta kuota 60 euro ordaindu beharko da. Bazkide izanez gero, 50 euro.

Izena ematea, asvineneaskola@gmail.com helbidera idatziz edo 665 73 80 81 telefono zenbakira deituz egin daiteke. Akrobazia eta yogaren arteko fusio honen bidez gorputzarekin eta buruarekin erraz eta pozarren konektatzeko aukera dagoela diote antolatzaileek.

Eskalada, dantza edo surf bezalako aktibitateetarako lagungarria da. Ikastaroan parte hartzeko ez da beharrezkoa esperientzia izatea, eta taldeka lan egiten den arren, ez da beharrezkoa bikotearekin joatea.

Aranalderen argazkiengatik salaketa jarri du Dignidad y Justiciai

Auzitegi Nazionalaren aurrean salaketa jarri dute, «terrorismoari goratzarre egiten zaiolako»

Erredakzioa Ibarra

Dignidad y Justiciai Auzitegi Nazionalen Ibarra udal txeko balkoian «Maite Aranalde ETako kidearen bi argazki jarri dituzte» salatu du. «Terrorismoari gorazarre egiten diola» ere adierazi dute. «ETA ez, ETA no jartzen duen kartela manipulatu jarri dituzte argazkiak» argitu dute. Dignidad y Justiciai, «balkoian dagoen kartela berehala kentzeko» eskatu du, eta era berean «pegatinak jarri dituen edo dituzten lagunak identifikatzea» nahi du. Hori dela eta, elkarteak, «Polizari, Guardia Zibilaria eta Ertzaintzari informez eskatu dizkio» guztia argitzea eskatuz.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Atekabeltzek udarako hainbat ekimen antolatu ditu

Udako zinemaldia, Film Laburren Lehiaketa eta Frontenis Txapelketa antolatu dituzte, besteak beste

M. Ugartemendia Leitza

Leitzako Atekabeltz gaztetxeak hainbat ekimen antolatu ditu uda honetarako. Udari hasiera eman diote jada udako zinemaldiarekin, baina, horrez gain, II. Film Labur Lehiaketa eta Frontenis Txapelketa ere antolatu dituzte.

Udako zinemaldiari pasa den asteazkenean eman zioten hasiera. Lehen proiektioan leitzarrek egindako *40 ordu* filma eman zuten. Hilaren amaiera arte ere, datozen bi asteazkenetan, beste bi filma ikusteko aukera izango da. Pelikulen proiektioak Gaztetxean egingo dira, 22:30ean puntuan

hasita. Asteazken honetan, hilaren 22an, Deepa Mehta zuzendaria *Water* pelikula interesgarria ikusi ahal izango da. Filma India kolonialen kokatuta dago, eta bertako emakume alargunen egoeraren berri ematen du.

Hilaren 29an, asteazkenean, emango dute zinemaldiko azken fima. *Los edukadores* film alemaniarraren zuzendaria Hans Weingartner austriarra da, eta Daniel Brühl da rol nagusia duen aktorea.

II. Film Laburren Lehiaketa

Zinea albo batera utzi gabe, aurtengo bigarren aldiz Film Laburren Lehiaketa antolatu dute Gaztetxean. Lehiaketa honetan, bideo kamera, argazki kamera edota mugikorra duen edonork parte hartu ahal izango du. Lana hiru tresna horiekin grabatu baitaiteke.

Film laburraren gaia askea da, norberak aukera dezake, eta

lehiaketan parte hartzen duen talde bakoitzak hiru laburmetrai desberdin aurkeztu ditzake. Baina, bakoitzak gehienez 15 minutuko iraupena izan dezake.

Grabatutako bideoak DVD batean aurkeztu behar dira, .mov formatuan. Honekin batera, kartazal batean taldearen eta taldeko partaideen izenak eta film laburren izena jarri beharko dira. Guzti hau, uztailearen 15a baino lehen egin beharko da.

II. Frontenis Txapelketa

Zinea gustatzen ez zaionak ere izango du bere aukera uda honetako ekimenetan parte hartzeko. Gaztetxearen 6. urteurrena dela eta, II. Frontenis Txapelketa prestatzen ere ari baitira. Partidak uztailearen hasieran hasiko dira eta Gaztetxearen urteurren eguneko festan, hau da, uztailearen 23an, izango da finala. Arauen edota daten berri hurrengo egunetan emango dute antolatzaileek.



Udako zinemaldiko filmak Atekabeltz gaztetxean emango dituzte. M.U.

Kultur etxeak ordutegi berria izango du udan

Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta asteazken arratsaldetan egongo da zabalik Kultur Etxea

M.U. Ibarra

Ibarrako Udakultura eta Gazteria Sailak adierazi du atzotik hasi eta uztailearen 29a bitartean Kultur Etxea eta Liburutegia udarako ordutegira egokitzen direla. Hori dela eta, atzotik aurrera or-

dutegi berrira egokituta zabalduko dituzte.

Uztailearen 29ra bitarte, astelehenetik ostiralera 09:00etan zabalduko dute Kultur Etxea eta 09:30ean Liburutegia. 14:00ak arte egongo dira zabalik biak. Asteazkenetan, 16:00etatik 18:00etara ere zabalik egongo dira.

Abuztuaren, Liburutegia nahiz Kultur Etxea itxita egongo dira. Eta, irailaren 1an eta 2an, berriz ere goizez zabalduko dituzte: 09:00etatik 14:00etara Kultur Etxea, eta 09:30etik 14:00etara Liburutegia.

→ Laburrak

Festak antolatzen hasteko bilera, gaur

BERROBI ▶ Herriko San Agustín jaiak antolatzen hasteko lehenengo bilera egingo da gaur, hilak 21, 20:30ean, udaletxean. Herritar guztiak bilera horretan parte hartzera gonbidatu dituzte.

Uztailean ludoteka jartzeko asmoa du udalak

ELDUAIN ▶ Udalak uztailearen 4tik 29ra ludoteka jartzeko asmoa du. Ordutegia 09:30etik 13:00etara da, eta 4 urte beteta dituzten eta 10 urte

aurten betetzen dituztenen arteko herriko haur guztiak parte hartu dezakete. Izena udaletxean eman behar da, 943 683 121 telefono zenbakira deituta, hilaren 28a baino lehen.

Lourdes Oñederra izango da Irakurle Taldearekin

TOLOSA ▶ Datorren asteazkenean, hilak 22, 19:30ean Galtzaundi Irakurle Taldea elkartuko da. Bertan Lourdes Oñederraren *Eta emakumeari sugeak esan zion* liburua aztertuko dute. Lourdes Oñederra idazlea bera ere bertan izango da eta bere liburuarren inguruko zehetasunak eskainiko ditu Tolosako Kultur Etxean.

9.000 lagunek bisitatu dute Nazioarteko Lorategi Jaialdia

Antolatzaileek emaitzak «oso onak» direla, eta bisitariak «baikorki» baloratu dutela baieztatu dute

M.U. Tolosa

Duela hilabete inguru zabaldu zen Zumardiaundiko Nazioarteko Lorategi Jaialdia. Arduradunek zenbatutako datuen arabera, jada 9.000 lagunek bisitatu dute parkea. Arduradunak «oso gustura» daude eta emaitza «oso onak» direla baieztatu dute.

Tolosaldea Tourrek eskaintzen dituen bisita gidatueta 400 lagu-

nek parte hartu dutela ere adierazi dute antolatzaileek. Bertaratu diren jatorria kontuan hartuz gero, gehienak Tolosa eta Tolosaldekoak izan direla azpimarratu dute; baina, Gipuzkoako nahiz Euskal Herriko beste toki batzuetatik ere etorri da jendea. Horrez gain, madrildar bisitariak, herrialde katalanetakoak eta frantsesak ere gehitu behar zaizkie.

Bisitarien lorategien inguruan galdetu dietenean, berriz, ia denek «baikorki» baloratu dute Zumardiaundiaren berritzea eta egitasmoa bera. Arduradunen arabera, «hilabete guztian zehar ez da gorabeherarik izan». Gainera, beraien iritziz «bisitari gehienek oso ongi ikusi dute txakur eta

bizikletei sarrera eragoztearen neurria».

Amaitzeko, lau lanpostu berri sortu direla, Lorategi Jaialdia dela eta. Beraien lana, informazioa, bisita gidatuak zuzentzea, tabernako zerbitzua eskaintzea eta inguru berdeen zainketa egitea dira. Hau, Lanbidek, Tolosako Udalak eta Goroldi SLU-k lankidetzan, martxan jarritako programa baten barruan. Jaialdia hasi zenetik, bertaraten direnek, lehiaketa batean parte hartu dezakete. Bertan, gehien gustatzen zaien lorategia bozkatzeko aukera dute. Oraindik ere, bertaraten direnek bozka ematen jarraitzen dute. Beraz, erabakitzeke dago, nor irabaziko duen.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Ile apaintzailea.** Tolosako ile apaindegi batek, esperientziadun persona bat behar du lanaldi osorako. Interesa dutenek, dei dezatela 625 70 50 59 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria.** Amezketako taberna batean, asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar dute. Interesatuak deitu 605 72 77 30 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria eta sukaldaria.** Tolosako ostalaritza zentro batean, zerbitzari bat eta sukaldari

bat behar dituzte udaran lan egiteko. Ezinbestekoa da esperientzia izatea. Lanaldi osoa, goizez eta arratsalde. Interesatuak bidali curriculuma info@cmujika.net helbide elektronikora. Orain arte helbide elektronikoa gaizki jarri dugu; beraz, garrantzitsua da curriculumak helbide berrira bidaltzea.

ALOKAIRUAN

■ **Apartamentua.** Peñiscolan, zazpi pertsonentzat egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean. Balkoia,

SALGAI

■ **Quad motorra.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 Quad-a salgai. IAT-a pasata, gehigarri askorekin eta oso egoera onean. Interesatuak deitu 600 75 25 37 telefono zenbakira.

Tolosa



SAN JOAN JAIEN IRAGARPENA

Tolosako San Joan Jaiek ate joka datoz. Horren adibide, asteburuan herrian izan diren jarduerak. Larunbatean, ohiko azokaz gain, azoka berezia izan zen. Bertan hainbat produktu erosiko aukera izan zen. Samanegio eskolak bigarren eskuko liburuak saldu zituen Bibliomula proiektuarentzako dirua eskuratzeko. Kirolak ere zen falta, 3x3 saskibaloi txapelketa jokatu baitzuten Gernikako Arborelan Lorategietan. Muralak eta graffitiak ere margotu zituzten herriko zenbait tokotan.



Aldaba



UKENDUEI BURUZ IKASTEN

San Joan inguruak loreak eta sendabelarrak bilztzeko garai egokiena dela eta, Aldabako Intur Auzo elkarteak, hauenkin ukendua egiteko talerra antolatu zuten. Irakasle lanetan, Axun Zubeldia aldabarra aritu zen. Intubusa, aloe vera eta eguzki lore/ain-geru loreekin egindako ukendua prestatu zituzten.

Tolosaldea



SAHARARREI ELKARTASUNA

Sahararentzako jasotako produktuekin hiru karnio atera ziren Tolosaldean, 50 bat tona gutxira, eta beste 10 inguru auzerago bidalko dira. Ekitaldian Jon Diaz Tolosaldeko Sahararekin-eko lehendakaria (zutik), Fatma Brahim Frente Polisarioko Euskal Herriko ordezkaria, Ibai Inarite Tolosako alkatea, eta Euskal Fondoko Itziar Iturri izan ziren. Larunbatean ere elkartasuneko futbol partida, bazkaria eta kontzertuak izan ziren.



Sanjoanak ondo pasa!



Villabona



KULTUREK BAT EGIN DUTE

Mundua Villabona munduan ekimenari amalera eman zioten larunbatean. Aniztasuna ardatz hartuta hainbat jarduerak egin zituzten. Marrazki lehiaketa, hainbat kulturetako jaki dastatzea, hainbat hazuntzetako abestak kantatu...

Areso



GURASO ELKARTEAK, 25 URTE

Aresoko guraso elkarteak bere 25. urteurrena ospatu zuen. Bazkaltzeko 60 lagun elkartu ziren eta bai goizean eta bai arratsaldean, haurrei zuzendutako hainbat jarduerak izan ziren. Elkartetik azaldu dituzten, «ederki pasa genuen eguna»...

Ibarra



FESTAZALE ASKO GAZTE FESTETAN

Asteburu oparora izan da Ibarako Gazte Festena. Ohiko moduan, festazale ugari eskaintzen zuten jaleki. Denetarik izan zen Gazteen bazkaria, haurrentzako kuskunak, tortillajatea, kontzertuak...

Tolosa



BIGARREN TRUKE EGUNA

Emakumeen Denboraren Bankuak bigarren truke eguna antolatu zuen igandean. Zerkusian bildu ziren eta elkarren artean trukeak egiteko aukera izan zuten bertaratutako zirenek.

harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Otordua
Casa Julian Jatexean
 2 laguntzako bazkaria edo affaria
 Santa Klara, 6 - Tolosa
 Tel: 943-671417
 www.casajuliandetolosa.com
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 Bi ile mozketari
Frida ileapaindegian
 bi ile mozketari
 Letuxaga kalea, 2 - Tolosa
 Tel: 943-57 68 91
 www.fridaileapaindegia.com
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 Abentura parkea
Txindokiko Itzaleko
 Marinen Zuhaitzira
 hiru laguntzako bina sarrerra
 Larnati • Abaitzisketa
 Tel: 9434043367 • 420949172 53
 www.txindokikoitzalea.com
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 Aquariuma
Donostiako Aquariumean
 3 laguntzako bina sarrerra
 www.aquariumss.com
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko dirua edo diruz 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info (harpidedunen kodea, izena, herria, eta zereskaitzetan parte hartu nahi duzun gaiti ederrengatik) hitza hitzaldelako proiektuaren barnean eta ondoren goizeko 10:00 orduan, Txokoa hitza hitzaldelako proiektuaren barnean dago.

harpidedun TXOKOA hitza

Joxe Gabirondok Euskal Herriko txapelketa berri bat irabazi du

Nazioarte Erako III. Segatxapelketaren azken jardunaldia Baliarrainen jokatu zen larunbatean

Asier Imaz

Euskal Herriko Nazioarte Erako III. Segatxapelketaren azken jardunaldia Baliarrainen jokatu zen larunbatean. Alde batetik, sailkapen nagusirako lehia zegoen, eta bestetik, Europako Txapelketara joateko 15 txartel. Eskualdeko segalari ugari elkartu ziren Baliarrainen, gizonetako eta emakumezkoen mailan.

Gizonezkoak

Nazioarte Eran sailak azkar eta txukun moztu behar izaten dira. 3-4 minuturen inguruan ibiltzen dira segalariak, eta Baliarrainen azkarrena Migel Mari Jauregi *Altzo* izan zen, 2:52ko denborarekin. Bere atzetik, Jexux Mari Goenaga gelditu zen, 12 segundora. Hirugarren postuan, 16 segundora, Joxe Gabirondo sailkatu zen. Emaitza honekin gazteluarrak txapela berri bat lortu zuen, sailkapen nagusia irabazteko nahikoa izan baitzuen hirugarren gelditzearekin. Hiru jardunaldiren ondoren, sailkapen nagusian Mitxelena gelditu da bigarren, *Altzo*ren aurretik. Eskualdekoei dagokionez, Andoni Egiak zazpigarren postua lortu du, eta Mikel

Alkortak zortzigarrena. Arkaitz Arteaga 19. sailkatu da.

Emakumezkoak

Baliarrainen Arrate Gari nagusitu zen 1:39 segundoko denborarekin. Bigarren Alazne Etxaburua sailkatu zen eta hirugarren Aina Galarra. Igaro Balda laugarren gelditu zen, 2:48ko denborarekin. Sailkapen nagusian, lehen hirurak Baliarraingo berdinak dira. Laugarren postuan, ordea, Naroa Geresta aurkitzen da, eta ondoren dator Igaro Balda.

Gazteen mailan Garazi Ezeizak irabazi zuen hirugarren jardunaldia. Orokorrean ordea, Irati Astondoa nagusitu da. Ainhoa Galarra hirugarren gelditu da, eta Ainara Otamendi laugarren.

Europako Txapelketa

Euskal Herriko Txapelketa honetatik 15 segalarik Europara joateko txartela lortu dute. 30 urtetik gorako mailan, hiru gizonetako eta emakumezko bat joango dira txapelketa honetara: Joxe Gabirondo, Bixente Mitxelena, Migel Mari Jauregi *Altzo* eta Arrate Gari.

30 urtera iritsi ez diren beste 11 segalarik osatuko dute Euskal Herriko ordezkaritza. Besteak beste, Andoni Egia, Joseba Agirrezabala, Garikoitz Etxeberria, Unai Iraola, Arkaitz Arteaga, Naroa Geresta, Irati Astondoa, Garazi Ezeiza eta Ainhoa Galarragak.



Andoni Egiak Europako Txapelketara joateko txartela lortu du. I. GARCIA



Ainhoa Galarra Joxe Gabirondo ondoan duela. I. GARCIA

Danena Olaederrako pultsulariak sendo darraite

Euskadiko Ligan lehen postua lortu dute Danel Lopezek eta Asier Gallegok, kadete eta promesa mailan

A. Imaz

Danena Olaederra klubeko pultsulariek hainbat lehiaketa jokatu dituzte azken asteetan. Maiatzaren 28an, Espainako Unibertsitateen arteko halterofilia Txapelketa jokatu zen Madrilan. Igor Sasiainek, 69 kiloko kategorian, urrezko domina lortu zuen. Joseba Arrate, aldiz, laugarren gelditu zen.

Ekainaren 4ean, Espainako Txapelketa jokatu zen Iruñean. 69 kiloko kategorian Igor Sasiainek 4. postuan lortu zuen. 85 kilotan Teddy Martinezek ere 4. gelditu zen. Francisco Gonzalezek 8. egin zuen. 94 kilotan Francisco Cruzek 2. egin zuen.

Ekainaren 11n Euskadiko Liga jokatu zen Nafarroako hiriburuan, kadete eta promesa mailan. Kadeteetan Danel Lopezek lehen postua lortu zuen. Promesetan ere Danena Olaederrako Asier Gallego izan zen txapeladuna. Joseba Arrate hirugarren gelditu zen eta Issam Eloikili bederatzigarren. Sofyam Rochdiri dagokionez, hamargarren postuarekin etxeratu zen.



Danena Olaederrako Francisco Gonzalez pultsularia. HITZA

↓ **Sailkapena****GIZONEZKOAK**

1. Walter Becerra	35:02"
2. Xabi Lekue	35:58"
3. Josu Arregi	36:17"

EMAKUMEZKOAK

1. Ana Conde	40:44"
2. Izaskun Zubizarreta	41:47"
3. Maite Maiora	44:02"

ESKUALDEKOAK

9. Juan Mari Garin (Alegia)	37:31"
12. Eneko Garmendia (Baliarrain)	38:34"

14. Balen Tolosa (Tolosa)	39:38"
16. Mikel Goitia (Altzo)	40:32"

24. Ioseba Rojo (Tolosa)	41:15"
25. Josu Goñi (Amezqueta)	41:15"

28. Pedro Garduño (Anoeta)	41:36"
30. Txiki Plazas (Berastegi)	41:42"

32. Iñigo Artutxa (Tolosa)	41:51"
38. Luis Mari Otegi (Amasa-Villabona)	42:27"

42. Joseba Bengoetxea (Tolosa)	42:50"
--------------------------------	--------

65. Iñaki Urdalleta (Ibarra)	44:41"
66. Aitor Bengoetxea (Tolosa)	44:43"

70. Jon Ander Rodriguez (Alegia)	45:02"
77. Egoitz Ugartemendia (Hernialde)	45:50"

94. Mikel Imaz (Ibarra)	47:37"
101. Imanol Otermin (Aduna)	48:54"

113. Peru Ortiz de Zarate (Asteasu)	50:16"
135. Jesus Artola (Ibarra)	58:07"

138. Miguel Agirre (Alegia)	1:00:15"
-----------------------------	----------



VII. Zizurkil-Villabona sariko une bat. HITZA

Nesken Euskadiko Txapelketa jokatu da Aiztondon

Elite mailan Eneritz Iturriaga nagusitu da, juniorretan Irene Usabiaga eta kadeteetan Lierni Lekuona

A. Imaz

Zizurkil-Villabona VII. Sari Nagusia jokatu zen igandean Aiztondon bailaran. Euskadiko Nesken Txapelketa ere bazen eta elite mailan Eneritz Iturriaga izan zen garailea. 2:20:19ko denborarekin amaitu zuen lasterketa bizkaitarrak. Bigarren Cristina Alcalde sailkatu zen, 19 segundora. Hirugarrena Villabonako helmugan, Ludovine Doze izan zen, irabazle-

arengandik 58 segundora. Txirrindulariek 83 kilometroko ibilbidea egin zuten. Juniorrak 67 kilometro ibili ziren errepide gainean. Helmugan lehena Irene Usabiaga izan zen. Kadeteen kasuan, 39 kilometroren ondoren, Lierni Lekuonak jantzi zuen txapela.

Gipuzkoako Txapelketa

Larunbatean Bergarako Osintxu auzoan Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen. Tolosako taldean korritzen duen Irene Usabiagak hirugarren postua lortu zuen bertan. Bosgarren talde bereko Ane Iriarte izan zen. Hamargarren postuan berriz, Nahia Dominguez sailkatu zen, hau ere Tolosa taldekoa.

Eskualdeko lehena Juan Mari Garin alegiarra izan da; 138 korrikalari iritsi dira helmugara



II emakume irten ziren Larraititik igandean, II. Txindoki Bertikalean. S. GOMEZ

Asier Imaz Abaltzisketa

141 korrikalarik hartu zuten parte herenegun II. Txindoki Bertikalean. Helmugara, aldiz, 138 iritsi ziren. Walter Becerra izan zen azkarrena, 35:02ko denborarekin. Eskualdeko lehena Juan Mari Garin alegiarra izan zen, bederatzigarren amaitu zuelarik. Emakumeetan, Ana Conde gasteiztarra nagusitu zen.

Hilberriak**ESKELAK**

943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

**JESUS MARI
BALERDI
GRANDES
'EURI'**


2011ko ekainaren 10ean
hil zen

Inoiz ez zaitut ahaztuko

TOLOSAN, 2011ko ekainaren 21ean


**JENARO
LABAIEN URKIZU**

*Urak dakarrena
urak darama
baina gure artean
betiko geldituko da
zure oroimena.*

Egiguren ilobak

TOLOSAN, 2011ko ekainaren 21ean

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazozina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!

Axier eta June Tejeria Larrarte
(Zizurkil).

Larunbatean 8 urte bete zituzten. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Laskorain ikastolako batxilergoko irakasleek, batxilergo bigarren mailako ikasleei bazzari bat prestatuko diete. «Horrela elkarrekin ospatuko dugu ikasle hauek 2 urterekin hasi eta 17-18 urterekin amaitu duten etapa. Ikastolako historia dira eta etorkizuneko itxaropena», esan dute ikastolako irakasleek.

■ **Berrobi.** San Agustin jaiki antolatuko lehen bilera gaur, 20:30ean udaletxean. Herriar guztiak gonbidatu dituzte bileran parte hartzera.

■ **Tolosa.** Atzerritartasunaren gaineko legeari buruzko informazio saioa gaur, 18:00etatik 20:00etara Kultur Etxean, Tolosaldea Garatzenek eta Eusko Jaurilaritzako Immigrazio Sailak antolatuta.

ERAKUSKETAK

■ **Alegia.** Garai bateko Alegiako argazkiak Jubilatuen taberna hilabete bukaera arte.

■ **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketak Ekomuseoan iraila bitarte.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.

■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Biharko Kukuaren jaitsiera iritsi bitarte ere jai giroa Anoetan

Herenegun Dantzari Txiki eguna, azoka, eta Erramun Martikorena eta Mikel Markezen kantaldia izan ziren

Rebeka Calvo Anoeta

Bihar 19:00etan jaitsiko da Anoetako Korputz jaietako hasiera ematen dien Kuku, baina hori iritsi bitartean anoetarrek izan dituzte motorrak berotzen joateko ekitaldiak ere.

Ostirlean herriko Dantza Tal-

dearen emanaldia izan zen, eta larunbatean Koadrilen Eguna ospatu zuten. Txupinazoa eguerdian bota zuten, Satorrak Arrastaka koadrilak zuzendutako ekitaldian. Hainbat koadriletako kideek bota zuten txupinazoa, eta kalejirarekin jarraitu zuten. 200 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzeko.

Herenegun izan ziren, hala ere, ekitaldi gehienak. Batetik, Dantzari Txiki eguna izan zuten, eta bestetik, goizean zehar, baserritarren azoka izan zen AHT Gelditu! Elkarlanak antolaturik. Iluntzean Erramun Martikorena eta Mi-

kel Markezen kantaldia ere izan zen.

Txalapatariaren hotsak

Aipatu bezala, bihar hasiko dira jaiak. Txalapatariak hasiko dira Kukuaren jaitsiera iragartzeko, plazan, eta ondoren, danborrada izango da Loatzoko musika eskolaren txarangarekin. Musika Eskolaren trikitilariak entzun ahal izango dira gero, eta 20:00etan sardina jatea egingo dute Kuku Elkarrekin antolatuta.

Eguna bukatzeko Itzel taldearen erromeria izango da plazan 23:30etik aurrera.



Koadrilen Eguna larunbatean izan zen, eta igandean azoka eta Dantzari Txiki eguna izan ziren. HITZA

195.000 € **IBARRA**

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Promozio berria

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Enausketa zero trua berria martxan!
Enausketa labe propioarekin.